

Gizarte ongizateaz kezkatzen gara

**EROSKI FUNDAZIOAREN ELIKADURA ESKOLAK
IKERKETA PROIEKTU DIBULGATZAILE BERRIA ATERA DU
ELIKADURAREN ETA OSASUNAREN INGURUKOA**

- **Jarduera lerro berrian, elikadura ohituren datu azterketa sakon bat egingo dute, eta horrek osasunean nola eragiten duen**
- **Ekimenaren helburua da gizarte eragile guztiak sentsibilizatzea eta egiazko aldaketa bat sustatzea elikadura ulertzeko eta lantzeko moduan, zinez osasungarria izan dadin**

Bilbon 2025eko martxoaren 27a.- [EROSKI Fundazioaren Elikadura Eskolak](#) jarduera lerro berria abiatu du: proiektu dibulgatzaile bat da, urteko ikasketa plan bat ezartzen duena, zertarako eta osasunaren ikuspegitik elikadurari buruzko datuen analisia egiteko. Xedea da ebidentzian oinarrituta interes sozialeko gaietan sakontzea eta hezkuntzari ekarpena egin eta sentsibilizazio lan bat egitea elikatzeko ohitura osasungarriak hartzearen inguruan.

Proiektuaren helburuak

Proiektu honekin, asmoa da egiazko ezagutza sorraraztea eta eskura jartzea nola eragiten duen elikatzeko ohiturek biztanleriaren osasunean. Ulermen sakonagoa lortu nahi dute zenbait arlotan: elikadura gardentasuna, kontsumo ohiturak, eta elikadura osasungarriaren aldeko politikak.

"Epe erdi eta luzera, helburua da gizartea sentsibilizatzea eta egiazko aldaketa bat bultzatzea elikadura ulertzeko eta lantzeko dugun moduz. Bereziki, asmoa dugu onurak ekartzea haur gizentasunarekin zerikusia duten arazoetan eta gaur egungo gizartean eragiten duten osasun arloko beste arazo batzuetan", azaldu du EROSKI Fundazioko Elikadura Eskolako zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Ikerketa zorrotza eta zabalkundea

Azterketa sakon egingo dute zenbait iturritako datuekin, bai publikoekin eta bai barnekoekin. Horri esker, zorrotz aztertu ahalko ditugu elikadura portaerak. Giltzarri diren zenbait arlotan zentratuko da ikerketa: herritarren kontsumo ohiturak, nutrizio

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

etiketak duen inpaktua eta beste faktore batzuen eragina, hala nola iraunkortasuna elikaduraren arloko erabakietan.

Ikerketaren emaitzak zenbait euskarritan zabalduko ditugu publikoki: txostenak, fundazioaren webeko publikazioak, sare sozialak, eta ohiko beste komunikazio kanal batzuk. Horretaz gainera, topaketak eta ekitaldi informatiboak egingo dituzte aurkikuntzak komunitateari zabaltzeko eta debate informatu bat sorrarazteko landutako gaien inguruan.

Lehenengo ikerlerroa: Nutri-Scoren eragina

Gaur aurkezturiko lehenengo ikerketa hau da: "Nutrizio arloko Nutri-Score etiketa aurreratuak elikadura ohituretan duen inpaktuaren gaineko azterketa". Lan hori egiteko, salmenta datuen eboluzioak aztertu dituzte, eta hiru urte honetan produktu horiek nutrizio aldetik izan duten osaera, elikadura osasungarriaren piramideko kategoria bakoitzeko sailkatuta. Horrek argituko du nutrizio kalitatearen aldetik nolako eragina duen erosketaren saskian.

Datuek agerian jarri dute Nutri-Score etiketaren arabera nutrizio aldetik osaerarik onena duten marka propioko produktuek tokia irabazi dutela erosketetan eta saski osasungarriagoa bultzatzen dutela (*Eranskinen txostena*).

Kolaborazioak eta aliantzak

EROSKI Fundazioak lankidetzan ibilbide sendoa darama nazioartean ospea duten erakundeekin, hala nola [UNICEF](#) eta [WWF](#), eta aurrerantzean jarraituko du aliatu berriekin lanean gizartean garrantzia duten gaiak ikertzen. Fundazioaren bereizgarri da ikuspegi independente eta zorrotza edukitzea, horrek ziurtatzen baitu bai azterketak eta bai zabalkundea datu egiaztatu zorrotzetan eta analisi objektiboetan oinarritzen direla.

Uste osoan, EROSKIren Elikadura Eskolak zenbait ikerketa gauzatuko du gai haiei buruz: elikadura osasungarria, kontsumo ohiturak, iraunkortasuna eta nutrizio arloko heziketa. Azterketak eguneratuz joango dira maiztasunez; horrela, lortuko dugu proiektua osasunaren eta elikaduraren arloetan gaur egun dauden premia eta erronkekin lerrokatuta eustea.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE ÍZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)